

BALOREZKO PROPOSAMENA:

Gure proiektuak adinekoen bakardadea eta isolamendua arintzea du helburu, izan ere, askotan adinekoek bakardadea sentitzen dute eta horrek osasunean eragin negatiboa izan dezake. Horrez gain, Alzheimerra edo dementzia duten pertsonek eguneroko estimulua behar dute, baina familiak ez du beti aukera edo denbora horretarako. Proiektuaren berrikuntza nagusia AI bidez elkarrizketa atsegina egitea da, erabiltzaileari laguntza emozionala eskaintzeko, eta robotak mugimendua eta jarraipena ahalbidetuko du, etxean erabiltzailea jarraitzeko eta beti gertu egoteko. Halaber, laguntza pertsonalizatua eskainiko du, gogorazpenak eta eguneroko laguntza emanez. Hori lortuko da kanta ezagunak erreproduzitzen haien gaztaroan entzun dituzten abestiak erabiliz oroitzapenak gogora ekartzeko. Jolas interaktiboetara jolasteko aukera ere izan gu gure robotak, zentzumenak praktikan jartzeko. Bezeroei prezio eskuragarri bat eskaintzen diegu, 500€, adinekoentzako laguntza eroso eta segurua, eta erabiltzeko erraztasuna, egokituta adinekoen beharrianetara. Robotak lehenengo urte bietarako segurua izango du, apurtu edo arazoak izanez gero. Instalatzeko eta azaltzeko gure langileen laguntza eskatu ahal izango da, funtzionamendu hobeago bat ziurtatzeko. Faktore nagusiak interakzio eta estimulazioaren bidez adinekoen ongizatea hobetzea eta bakardadearen aurkako lagun bat eskaintzea dira, erabiltzaileei babesa eta animoa emateko.